Enara Garmendia Irakasle eta idazlea

«Euskarazko maitasun eleberri bat eskaini nahi nuen, alternatiba gisa»

'Ezagutu zintudanean' nobelan, June eta Markel protagonistak adiskidetasunetik maitasunera igaroko dira, Nafarroako udaleku batzuetan egingo duten egonaldian

OIHANE CALVO UGARTE

Azken urteotan, literatura erromantikoak sekulako gorakada izan du mundu osoan, bereziki gazteen artean. Euskaraz, ordea, genero honek ez du orain arte presentzia handirik izan. Hutsune hori betetzera dator Enara Garmendiaren 'Ezagutu zintudanean' nobela, Erein argitaletxeak babestuta.

Olaberria udalerri gipuzkoarrean jaiotako idazlea (1993), gaur egun DBH eta Batxilergoko ingeles irakasle lanetan dabilena, irakurle eta idazle amorratua izan da txikitatik. Orain arte, 'Hiru gara, baina niri bost!' eta 'Etxetik Ameriketara' lanak zituen idatziak, biak 2021ean argitaratuak, eta maiatzean argitaratu zuen eleberri berria, Nafarroako udaleku batzuetan girotutako maitasun istorioa. Bertan, Junek eta Markelek, 16 eta 15 urteko nerabeek hurrenez hurren, elkar ezagutuko dute eta, bi aste eskasean, adiskidetasunetik harago doan harremana eraikitzen hasiko dira.

– Maitasun istorioak inoiz baino indartsuago daude gaur egun, baina euskaraz ez dute beste hizkuntzetan izan duten oihartzun bera izan. Zergatik uste duzu hori horrela dela?

– Egia esan, ez dakit zergatik ez diren idazle edo argitaletxe gehiago animatu halako lanak argitaratzera. Irakurleen artean, batez ere gazteen artean, oso genero arrakastatsua da. Euskaraz beste mota bateko lanak argitaratu izan dira gehienbat, sakonagoak beharbada, baina gure hizkuntzan ere era guztietako istorioak konta daitezkeela uste dut.

– Zure kasuan, zerk eraman zintuen euskarazko nobela erromantiko baten aldeko apustua egitera?

– Bi arrazoi nagusik bultzatu ninduten. Batetik, gaztetan nik neuk irakurri nahiko nukeen istorioa idatzi nahi nuen. Bestetik, irakaslea naizenez, ikusten nuen ikasle irakurzaleek maitasunezko nobelak irakurtzen zituztela, ia beti gaztelaniaz eta, sarritan, harreman toxikoak normalizatzen zituztenak. Horri alternatiba bat eskaintzeko asmoz sortu nuen 'Ezagutu zintudanean' eleberria.

– June eta Markel dira eleberriko protagonistak. Haien arteko harremana adiskidetasunetik maitasunera doa, 'friends to lovers' tropo ezagunari jarraituz. Zer interesatzen zitzaizun harreman hori eraikitzeko modutik?

– 'Friends to lovers' tropoak, baliabide narratibo gisa, tentsio berezia sortzen du: protagonistek askotan ez dakite sentitzen dutena laguntasuna ala maitasuna den, eta irakurleak haiek baino lehenago ohartzen dira bien artean zerbait gehiago sortzen ari dela; horregatik, askotan hauek noiz jabetuko diren zain egoten da irakurlea. Bestalde, ahal bezain harreman natural eta sinesgarria eraiki nahi nuen, harreman toxikoetatik urrunduko zena. Lehenengo lagun bihurtzeak errespetua, konfiantza eta berdintasuna modu naturalagoan lantzea ahalbidetzen du.

> «Harreman natural eta sinesgarria eraiki nahi nuen, harreman toxikoetatik urrunduz»

– Nobelaren agertoki nagusia Nafarroako udaleku batzuk dira. Zergatik aukeratu zenuen giro hori istorioa kontatzeko?

– Betidanik iruditu zait interesgarria udalekuetako harreman eta bikoteak nola sortzen diren. Intentsitate berezko loturak izaten dira, eguneroko gertatusunak eragindakoak eta nolabaiteko 'linbo' batean gertatzen direnak. Nik neuk urte asko eman nituen udalekuetara joaten, umetatik hasi eta begirale izan nintzen arte, eta urte horietan sortu zitzaidan harreman mota horiekiko interesa. Beraz, nobela erromantiko bat idaztea erabaki nuenean, giro hori naturalki etorri zitzaidan burura istorioaren agertoki gisa.

– Harreman osasuntsu eta errespetuzkoen aldarrikapena agerikoa da nobelan, baina horrez gain, sexualitateak ere badu bere lekua istorioan. Nola heldu diozu gai horri gazte irakurle bati zuzendutako eleberri batean?

– Gai konplexua izan da, zalantzarik gabe. Zaila izan da erabakitzea noraino deskribatu, zer azaldu eta zer ez, eleberriko pertsonaiak adin txikikoak baitira. Ikerketa lan handia egin genuen Uxue Razquinek, nire editoreak, eta biok, eta inguruko beste irakurle batzuen ekarpenak ere jaso genituen. Ez genuen ez esplizituegiak izan nahi, ezta ezer azaldu gabe utzi ere. Jakin badakigu gazteek abusu eta mezu arriskutsuz betetako eleberri erromantikoak irakurtzen dituztela, eta horren aurrean, garrantzitsua iruditu zitzaigun sexuharremanak modu arduratsuan irudikatzea.

– Estilo zuzen eta arinaren alde egin duzu, elkarrizketak eta narrazioa uztartuz.

– Nik beti esan izan dut nire idazteko erarekin ez dudala sari literariorik irabaziko. Euskal idazle asko daude hizkuntza landu, aberats eta apaindu idazten dutenak; ez dut gezurrik esango, nik ez dakit horrela idazten. Hala ere, uste dut irakurleekin konektatzeko gaitasuna badudala, eta horrek erakutsi dit irakurle askok esfortzu handirik eskatzen ez duten irakurgaiak ere behar dituztela tarteka. Liburu hau udan, hondartzan irakurtzeko eleberri gisa irudikatzen dut, eta horretarako erritmo arina eta eguneroko hizkuntza ezinbestekoak iruditu zaizkit.

– Gazte irakurleengan pentsatuta idatzi zenuen hasieratik, ala publiko zabalago bat ere izan duzu buruan?

– Irakurle gazteengan pentsatuta idatzi dut une oro, baina behin liburua amaituta konturatu naiz, ingurukoen iritziak jasota eta nik neuk irakurtzen ditudan eleberri erromantikoak aztertuta, irakurle helduagoek ere konekta dezaketela istorioarekin eta protagonistekin. Batzuk pertsonaiekin identifikatuta sentidaitezke, eta beste batzuei gaztetako oroitzapenak ekar diezazkiekete.

Enara Garmendia, 'Ezagutu zintudanean' eleberria eskuetan duela.